

AMILDEGIAN BEHERA

Beti izan gara lagunik hoberenak, baina, bat-batean, esplikaziorik eman gabe, Miren, alde egin duzu. Betirako!

Egun hartatik aurrera guztia aldatu da nire bizitzan, nire poz eta nahigabeak kontatzeko inor gabe geratu naiz, bakarrik. Nire logelan sartuta egoten naiz sarritan bere argazkiak esku artean ditudalarik. Nahiz eta bira ugari eman nire lagunak bere buruaz beste egiteko arrazoiei, ez diot ez hanka eta ez bururik aurkitzen nire lagunak egin zuen ekintzari. Nolatan egin zuen hori! Banekien drogen munduan sartua zegoela baina ez nekien horren gaizki zegoenik. Nire burua erruduntzat dut, lagundu izan banio ez litzaioke horrelakorik gertatuko, non nengoen orduan! Depresioak ditut maiz eta nire buruarekin ere deseroso sentitzen naiz, baina okerrenea nire burua gaizki ikusten hasi naizenean izan da.

Egunetik egunera gutxiago jaten dut eta nire gorputza ahulduz doala diote, baina ni hala ere gizen sentitzen naiz. Nire ingurukoekin ez dut gaiaz hitz egiten, baina, nire gurasoak oso kezkaturik daude eta espezialista batengana eramatekotan daude. Ez dut joan nahi! Nirea ez da gaixotasuna!

Gauean ere gaizki sentitzen naiz eta jandako guztia komunetik behera nola doan ikusten dut. Eta horrela egunero. Goizean,

gosaltzera jaistean, amak bere bi begiak niregan jarriak ditu eta ez naiz eroso sentitzen. Honelako batean hau esan dit:

-Maitea, laztana, uste dut hoberena psikologo batengana joatea izango dela.

-Hori bada nahi duzuna....-erantzun diot nik gogo gabe.

Ordua hartu eta arratsaldean joan naiz kontsultara. Urduri nago, ezezagun bati nire barneko beldur, nahigabe, ametsak... kontatzea ez baitzait batere erraza egiten. Sartu orduko irribarre gozo bat luzatu dit konfidantza har dezadan. Galdera ugari egiten dizkit baina ez didate ezertarako balio, erantzun hauek ez baitute nire laguna berriz bizira ekarriko.

Zurrunmurrak zabaltzen hasi dira niregatik, jendea erotu egin al da? Nola izango dut ba nik anorexia? Ni gizen nago. Lagun batzuk portaera arraroa dute nirekin, gaixotzat hartzen naute. Beste batzuek aldiz alde batera utzi naute, baina badira berdin jarraitzen duten batzuk ere. Mutil lagunak ere utzi egin nau, lotsa emango dio gizen batekin ibiltzeak. Harroputz alena! Etxera heldu orduko nire egunerokoan idazteari ekin diot, bertara nire nahigabe guztiak islatuz. Nire bizitza okerrera doa eta guztia gehiegizko kilo hauengatik.

Urtebete igaro da jada eta medikuek gizentzen ez banaiz zentro batean sartuko nautela diote. Orain hasi naiz nire arazoaz

jabetzen, jaten hasi nahi dut, baina, nahita ere ezin dut. Zoritxarreko argaldu beharra! Non ote nuen burua honela hasi nintzenean?

Zentrora bidean noa, hilabeteko epea eman zidaten medikuek baina ez dut kilo bat ere gizendu. Zutik mantentzeko ia ez naiz gai eta nire umore aldaketak jasanezinak dira. Egoera larrian nago. Ez naute segundo bakar batez ere bakarrik uzten, norbait da, norbait dago beti zelatan. Nire logelak gartzela bat dirudi, hemen ez naiz aske. Egunetik egunera gehiago oroitzen naiz Mirenetaz. Bera nirekin egongo balitz ez nintzateke horrela egongo, berak ematen zidan indarra beharrezkoa dut orain. Nire buruaz beste egitekotan nabil, ezin baitut honela bizi. Psikologoaren bisita egunero jasan beharreko zerbait izaten da medikuen bisitaz gain. Nerbioekin zerikusia duten aldaketa handiak izaten ditut eta horregatik medikamentuz lepo nabil. Gurasoak bisitan etortzen zaizkidan aldiro negarrez amaitzen dute, astero nire egoera okerragoa dela ikusten baitute. Gaur, beste askotan bezala, negar egiteko gogoz esnatu naiz, arratsean amildegira igotzekoa naiz eta nire buruaz beste egingo dut. Erabaki dut! Ba al dut bada bizitzeko arrazoirik? Ez.

Zortziak dira eta auto bat iritsi berri da zentrora. Medikuek eta erizainek bilera dute, saihestu beharreko bakarrik guardiak dira. Atea ireki dut eta sarrerako atetik hurbilago nago orain. Korrika saio bat egin ostean eta lorontzien atzean gordez argindarra

kendu dut eta irten naiz azkenean zentrotik. Kilometro ugari ditut egiteko, taxi bati deitu diot nire mugikorretik eta amildegiko bidean noa. Iritsi naiz azkenean eta amildegia ertzean ezarri naiz. Haize bolada batek berarekin eraman nizan itxaroten ari naiz eta bitartean nire bizitza oso osorik igarotzen ari da nire begien aurretik. Berriz ere elkarrekin egongo gara lagun eta ezerk ez gaitu bananduko.

Hamar arte ozen zenbatuko dut eta jauzi egingo naiz. Bat,Bi, Hiru, Lau, bost, sei, zazpi!

Tititititi. Mugikor madarikatua nor izango ote da orain?

Eskuetan hartu dut eta mezua ireki dut:

Horren gauza esplika ezina,
Sentimenduen ulertezina.
Besteak egin ulertzeko ahaleginak maiz
Horren ezberdina ez haiz.
Beti habil berdinez berbatan
Noiz hasiko zara pentsatzen beste gauzetan.

Garai txarrak zenituen,
Baina jada joan dira.
Gauza onak sartu nahian dabiltza zure bizitzan
Emaiezu aukera bat.

Mezua, Markelek bidali zidan. Bere hitzek benetan hunkitu ninduten. Amildegitik aldentzen joan nintzen eta bira eman nuenean han zegoen bera. Bera zen taxiko gidaria eta ni ez naiz ohartu ere egin. Eskutik heldu nau erokeriaren bat egingo dudan beldurrez. Ondoren bere besoetara jauzi egin dut, negar malkoak ene begietatik erortzen ziren heinean. Urduri nago oraindik eta bere hitzekin lasaitzen ari naiz. Etxera eraman nau eta han jada seguruago sentitzen naiz. Markel, nire klaseko mutil bat da, inoiz beragan erreparatu ez dudana. Baina, bizitzak ezustekoak dakartza. Lagun izugarri onak gara eta konfidantza osoa dugu bata bestearengan. Egia esanda oso gogoko dut.

Hilabeteak aurrera doaz eta elkarrekin irteten hasi gara. Ikasketetan hobera noa eta nire tratamendua ere oso ongi doa. Ez naiz damu amildegitik behera bota ez izanaz, bizirik hobeto nago. Amildegian beherantz nindoan, bat-batean jauzi egingo nuela pentsatuz, baina bera agertu zen eta bizirik jarraitzeko arrazoiak eman zizkidan. Noizean behin zentrora itzultzen naiz bertan egin nituen lagunei bisita egitera. Erizainek asko maite naute eta baita bertan dauden gaixoek ere. Anorexia duen pertsona baten azalean egon naiz eta ohartu naiz, gaixotasun bat dela nik nuena eta sendatzeko metodarik hoberena maite zaituzten pertsonen babesa jasotzea dela. Hilerrira egunero joaten naiz Mireni bisita egitera eta berarekin igaro nituen une gozoak oroitzera. Badakit egunen batean berriz ere elkartuko

garela, baina egun hori urrun egotea nahiko nuke. Bizitzeko arrazoiak aurkitu baititut azkenean.